

● ELKARTEAK

Enpresa gehienak, ez dira gai beraien kabuz behar bezala funtzionatzeko eta kasu gehienetan, **elkartek** sortzen dituzte beste sektore batean lan egiten duen enpresa bat edo batzuekin.


Elkarte hauek gauza ezberdinak lortzeko erabili ahal dira. Esate baterako, salgai bat produzitzen duen enpresek gehienetan, produktua banatzeko beste elkarte bat azpikontratatzan dute.



Zerbitzuak eskeintzen dituztenek edo salmentak soilik egiten dituztenek berriz, **lehengaiak edo salgaiak eskuratzeko** hornitzaileekin sortu behar dituzte elkarteak. Gure enpresak hainbat elkarte beharko ditu ez baititu beharrezkoak diren baliabide guztiak behar bezalako zerbitzuak emateko bestela.

ZEINTZUK DIRA GURE ELKARTEAK?

Beraz, gurekin elkarlanean jarduteko beste enpresa batzuk ditugu buruan. Gure bezeroei estresa arintzeko eskaintzen dizkiogun ariketetako bat, gauzak puskatzea da. Gure bezeroek egunero pila bat gauza edo objektu apurtuko dituztenez, apurtu ahal diren baliabideak etengabe jasotzen eta botatzen egon behar gara eta hau ezin dugu gure kabuz egin. Honeri konponbidea emateko **txatarra saltzaile batzuekin** akordio batera iristea pentsatu dugu. Hauek oso rol garrantzitsua edukiko dute, hauek guztiz baldintzatuko baitute bezeroen gauzak apurtzeko ahalmena. Jarduera desberdinetan pila bat gauza suntsituko ditugunez eta hauek gero ezertako ez dutenez balioko, **birziklatzeko planta** batekin ere egingo dugu elkarlana. Hauei diru bat ordainduko diegu hilabeteetan eta eguneroko zerbitzu bat eskatuko diegu kamioi bat ekarri eta txatarra eraman dezaten. Honela, zakarrak ez pilatzea lortuko dugu.



Hauek ez dira izango gure aliatu bakarrak. Guk masajeak emateko ahalmenik ez dugunez, gure bezeroek txanda hartuko dute masajeak hartu nahi dutenerako. Horrela, masajeak noiz nahi dituzten jakingo dugu eta ordu kopuru baterako, **masajisten enpresa** bateko langileak azpikontratatuko ditugu. Hauek ere, pisu handia izango dute pertsona askori iruditzen zaielako lasaigarria masajeak jasotzea eta jendea erakartzeko gure baliabide nagusietako bat izango delako.

Hauekin biekin batera lanean, gure elkarreak osatuta egongo dira eta **baliabideak edukiko** ditugu gure enpresa aurrera eramateko. Horretaz gain, gure jarduerak askoz osatuagoak izango dira beste enpresa hauekin elkarlanean eta diru gehiago lortzea ahalbidetuko digute.